



Euskarazko prentsak milioi bat euroko igoera eskatu dio Jaurlaritzari

HITZA ▶ Euskarazko prentsaren arloak agerraldia eskain zuen atzo Donostian; HITZA ere han zen

LAGUNTZAK ▶ Proiektu berriak egon arren, 2000tik ez du igoerarik izan Kultur saileko aurrekontuak ▶ 2

TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA ▶

Nafarroak txapela eta Gipuzkoak hirugarren postua

Bertan, hiru leitzar eta gazteluar bat ▶ 7

Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalaurrekoetan da Amaia Agirre

TOLOSALDEA ▶ Saiorik erregularrena egin zuen billabonatarrak igandean, Lekunberrin, lehen kanporaketan; Bixente Gorostidi amezketarra hirugarren izan zen ▶ 5

ADUNA ▶

Sagarra bera bezain biribila izan da Upelera sagardo festa

Asteasuko Sarasola sagardotegiak irabazi zuen lehiaketa, atzo ▶ 4

BERTSOZALE ELKARTEA



TOLOSA ▶

Jai giroa non-nahi gaurtik, Berazubín

Bihar, mendi bizikleta maratona ▶ 3

ARESO ▶

Omenaldi hunkigarria eskaini dio Aresoko herriak Olazabali

Meza, omenaldi ekitaldia, herri kirol saioa eta bazkaria izan ziren ▶ 7



Joseba Olazabalen sokalagunak, Aresoko taldea, lanean. J. ASTIBIA

KOMUNIKABIDEAK ▶

Euskarazko prentsaren arloak 2006rako milioi bat euroko igoera eskatu dio Jaurlaritzari

2000tik Kultura sailean ez da sektorerako hazkunderik izan, nahiz eta proiektu berriak sortu diren; ordainketa lehen sei hilabetekoan egitea ere eskatu dio



Euskarazko prentsako ordezkariak, atzo, Donostian egindako agerraldian. E. ESNAOLA

ENKOITZ ESNAOLA

Hazten ari den sektorea da euskarazko prentsa, azkeneko urteetan proiektu berriak gauzatu direlako (haien artean, Hitzak), baina Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailean ez da errealitate berrira begira pausorik eman, aurrekontuetan

ez delako 2000tik 2005a arte igoerarik izan. Gainera, urtero laguntzen zenbatekoak berandu jakiten dituzte euskarazko prentsakoek, eta ordainketa erak ere arazoak sortzen ditu.

Egoera hori izanda, azkeneko hilabeteetan sektoreko ordezkariak biltzen aritu dira, eta atzo, Donostian, agerraldia

egin zuten hedabideen aurrean (han zen TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAKO kudeatzaile Itziar Zulueta). Egoera zein den adierazi ondoren, eskaerak: batetik, 2006rako euskarazko prentsarentzat Eusko Jaurlaritzako aurrekontuetan milioi bat euroko hazkundera izatea, eta, bestetik, diru laguntzen

zenbatekoa urtearen lehen sei hilabetekoan jakin eta ordaintzeko modua egitea.

Eragileok Kultura sailarekin eta Gasteizko Legebiltzarreko alderdiekin izan dituzte bilera. «Badirudi ordainketa arreratzeko konpromisoa hartzeko prest daudela. Kopuruaz, ordea, ez digute ezer esan».

IDATZIAREN EGILEAK ▶

- ▶ Aizu!
- ▶ Jakin.
- ▶ Uztaro.
- ▶ Bat.
- ▶ Ipurbeltz.
- ▶ Elhuyar.
- ▶ Euskara elkarten Topagunea.
- ▶ Nabarra.
- ▶ Berria.
- ▶ TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA.
- ▶ OARSOALDEKO HITZA.
- ▶ LEA ARTIBAI ETA MUTRIKUKO HITZA.
- ▶ UROLA KOSTAKO HITZA.
- ▶ GOIERRIKO HITZA.
- ▶ IRUTXULOKO HITZA.
- ▶ Bertsolari aldizkaria.
- ▶ Argia.
- ▶ Xirika.
- ▶ Gaztebulo.
- ▶ Geu (Gasteiz).
- ▶ Anboto (Durangaldea).
- ▶ Begitu (Arratia-Ubide-Zeberio).
- ▶ Berton (Mahatserría-Bilbo).
- ▶ Prest (Deustu).
- ▶ Drogetenoturri (Ermua-Mallabia).
- ▶ UK (Urbe Kosta).
- ▶ Aiurri (Beterrí-Aiztondo eta Beterrí-Buruntzaldea).
- ▶ Aldaize (Idiazabal).
- ▶ Artzape (Getaria).
- ▶ Barren (Elgoibar-Mendaro).
- ▶ Danbolin (Zestoa).
- ▶ ...eta kitto! (Eibar).
- ▶ Maxizatzen (Azkoitia).
- ▶ Pil-pilean (Soraluze).
- ▶ Txintxarri (Lasarte Oria).
- ▶ Uztarría (Azpeitia).
- ▶ Karkara (Orío-Aia).
- ▶ Guaixe (Sakana).
- ▶ Noaua! (Usurbil).
- ▶ Txaparro (Zarautz).
- ▶ Kronika (Hernani).
- ▶ Galtzaundi (Tolosa).
- ▶ Aikor (Txorierrí).
- ▶ Herriko (Herri Komunikabideak Koop).

EUSKARAZ IDATZITAKO HEDABIDEEN IDATZIA ▶ EGOERA ETA ESKAERAK

«Azken hilabeteotan, euskarazko idatzizko hedabideetako hainbat eragile elkarrekin aritu gara lanean, sektorearen azterketa egiteko oinarriak jartzen eta egungo egoerari buruzko gogoeta egiten.

Eusko Jaurlaritza 2006ko aurrekontua prestatzen ari den une honetan, diru laguntzen inguruko gogoeta egin dugu, eta berau Administrazioari nahiz alderdi politikoei jakinarazten ari gaitzaizkie, eskaera zehatzak egin. Alderdiekin eta Kultura sailarekin partekatzen ari garen gogoeta eta eskari horiek publiko egitera agertu gara gaur zuen aurrean.

Hiru puntu ditugu azpimarratzeko:

1. Diru laguntzen epeak. Gaur egun, urtearen hamargarren hilabeteetan sartu eta gero, oraindik, ez dakigu ez 2005eko diru laguntzen zenbatekoa ez laguntza hori noiz jasoko dugun. Egoera hau, zorixarrez, ez da berria, urtero gertatzen baita gauza bera. Urte berri baten eta legealdi berriaren aurrean, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailari eskatu diogu diru laguntzen zenbatekoa urtearen lehen sei hilabeteoan jakin eta ordaintzeko modua egin dezala.

2. Euskarazko komunikabideen laguntzarako

Kultura sailak jartzen duen diru saila ez da handitu azken bost urtean, diru laguntzetarako erabilitako 2005eko diru kopuruaz 2000koaren parekoa da, hau da, 3.800.000 eurokoa. Diru sail horretatik, 3.280.000 euro dira idatzizko euskarazko prentsari dagozkionak, eta kopuru honek ez du izan epe horri dagokion KPlren garapenik ere ez. Beraz, urtetik urtera, kostuen hazkundera etengabearen eraginez, gero eta baliabide gutxiago dugu euskarazko hedabideek gure jarduerara garatzeko. Urte hauetan guztietan, euskarazko idatzizko hedabideok urrats handiak egin ditugu: ekimen berriak sortu,

lehengoak sendotu (maiztasuna, kalitatea eta zabalkundera handituz), giza baliabideak hobetu, eta hori guztia gure bitartekoekin egin behar izan dugu, bakoitzak jasotako laguntzak txikitzen joan diren bitartean. Hala ere, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak berak estrategikotzat jotzen duen komunikabideen eremuak, oraindik, sendotasun maila nahikoa ez du lortu, eta laguntza publikoak ezinbesteko dituzte. Idatzizko prentsa oinarritzat hartuta, elkartu garen eragileen artean egin ditugun estimazioen arabera, egungo euskarazko prentsa idatzizko milioi bat euro gehiago beharko litzuzke 2006. urterako,

eta idatzizko prentsari dagokion aurrekontuan hazkundera hori aurrekusteko eskatu diegu Kultura sailari eta Eusko Legebiltzarrean ordezkari izan duten alderdiei.

3. Era berean, euskarazko gainontzeko hedabideen egitasmoak (irratia, ikus-entzunezkoak, interneteko hedabideak) behar den neurrian babestuak izan daitezela eta beraiek egiten dituzten eskariak aintzat hartuak izan daitezela eskatzen dugu. Euskarazko prentsa idatzizko eragileok egiten ditugun eskariak bestelako hedabideek egiten dituztenekin osagarriak dira, eta denak jasotzeko izan daitezela lan egingo dugu».

JAIK ▶

NOELIA LATABURU

Badirela, ez direla... Makina bat eztabaida piztu da herritarren artean aurtengo Berazubi auzoko jaien harira. Baina, azkenik, urteroko hitzorduari ez diote hutsik egingo auzotarrek, eta ekitaldi mordoan antolatatu dituzte datozen egunetarako.

Gaur. 18:00etatik aurrera murgilduko dira erabat festa giroan, buruhandiek. Gauean ere izango da zer gozatua, May Gorostiaga, Alex Rabanal eta Kike Bigurioren eskutik. Eta biharko jai eguna goizean goizetik hasi nahi dutenek Berazubin izango dute aukera, Denis Band taldearen musika doinuek 04:30ak arte iraungo baitute.

Bihar. Jaien egun handia, Pilar Eguna, bihar ospatuko dute, eta txistulariek, goiz eresiarekin, bizilagunak alaituko dituzte, 09:00etan. Ordu berean, auzoko hildakoen aldeko meza egingo dute. 09:30etan, berri, mendiko bizikletako maratoia egingo dute, Mendikute elkar-teak antolatuta. Beste kirolak hartuko du azken honen lekuko, izan ere, 11:30ean, emakumeentzako Toka Txapelketa egingo dute, auzoko plazan. Eguerdian, 14:30etik aurrera, bazkaria eskainiko dute plazan bertan, Nafarroa Eguna ospatzeko. Andosilla eskolako jote-roak eta dultzaineroak alaituko dute nafar erara antolaturiko festa. 17:30ean, zezen plazan, behi kozkorak eta poneyak ipiniko dituzte, eta 20:00etan pintxo lehiaketa eta futbolin lehiaketa izango dira, plazan.

Etzi, urriak 14. 22:30ean, erre-ginaren eta damen parte-hartzearekin, danborrada nagusia irtengo da, Nekaezinak txarngaren eskutik. Gaualdean, dantzaldia izango da, Drindots taldearekin.

Larunbata, urriak 15. Egun hau ere gazteei zein helduei zuzenduriko ekintzaz blai dator. 11:30ean, auzoko plazan, 3x3 futbito txapelketa antolatu

Auzokoentzat txanda

Gaur hasi eta igandera bitarte, Berazubi auzoan jaiak izango dituzte; musika, gastronomia, kirol ekitaldiak eta lehiaketak izango dira nagusi egun hauetan

Mendi bizikleta maratoia bihar, Mendikutek antolatuta

Berazubiko jaien egitarauaren barruan, kirolak ere badu bere tartea. Hori dela eta, Mendikute elkar-teak mendi bizikleta maratoia antolatu du bihar, 09:30etik aurrera. 42 kilometro luzera izango du, eta Tolosa izango du abiapuntu eta helmuga. Tartean, Leaburu, Gaztelu, Uli, Oresa, Lizartza, Narbaritzu, Ibarratzu, Añi, Al-tzo eta Oilaun igaroko dituzte txirindulariek.

Proba honetan parte hartu nahi dutenek zenbait arau bete beharko dituzte. Gutxieneko adina 16 urtekoa izango da; maratoia ez da lehiakorra izango; laguntza mekanikoa eta medikua egongo da ibilbi-

dean zehar; kaskoaren erabilerak derrigorrezkoa da; dutxa eta mangera zerbitzua eskura izango dute kirolariek; partaide guztiei diploma eta oroigarria banatuko zaie; bi hornidura puntu egongo dira ibilbidean zehar, eta beste bat helmugan. Izen-emate mahaiak frogatzen duen ordu erdi lehenago itxiko dira; ibilbidea erabat seinalizatua egongo da; antolatzaileak ez dira erantzule txirindulariak jasan ditzaketen min eta bestelako aroen, frogak irauten duen bitartean. Errepidean trafiko arauak errespetatu beharko dira; halaber, 42 kilometroetan topa ditzaketen mendizaleak



laz euriak busti zuen mendi bizikleta maratoia. HITZA

errespetatu beharko dituzte. Azkenik, eta oso garrantzitsua dena, antolatzaileen adieraz-bide eta arau guztiak jarraitu beharko dituzte parte-hartzaileek. ◀

dute. 14:30ean, berri, babarrun jatea eskainiko dute auzoko bizilagunentzat, Berazubiko elkar-teak egina. Bazkalostean, 16:00etatik aurrera, mus azkarrak txapelketa jokatu da, 66 eta Ordizia tabernetan. Ordu berean, haurrei zuzenduriko festa izango da. 16:30ean, futbol partidua egingo dute kiroldegian: auzoko gazteak eta zaharrak aurrez aurre izango dira. 19:00etan, buruhandiek alaituko dituzte auzoko kaleak eta 23:00etan, Tolosa 750. Urteurrena Fundazioak antolatuta, kontzertua izango da zezen-plazan, Ken7 eta Muchachito Bonbo Infierno taldeekin.

Igandea, urriak 16. Txistulari bandarekin, goiz eresia egingo dute, eta 12:00etan toka lehiaketa gizonentzat. Eguerdian paella lehiaketa egingo dute, ondoren bazkari eta sariekin. 19:00etan, dantza erakustaldia egingo dute festak amaitzeko.

GIZARTEA ▶



Emakumeon aurkako indarkeria salatuz

N. Lataburu ▶ Iragan ostiralean, iluntzean, Emakumeen Mundu Martxarako Tolosaldeko plataformak kontzentrazioa egin zuen Trianguloan, emakume bat bere semeak erahil zuela salatze-

ko. 40 lagun inguruk egin zuten bat protestarekin. Gertakaria Bilbon jazo zen aurreko asteko asteartean. Eta atzo, hain zuzen ere, aipatu gizona urkatu azaldu zen, ospitaleko gelan. HITZA

hitza txokoa ^{lagunen} **10 sarreraren zozketa**

▶ Tolosa 750. Urteurrena Fundazioak antolatuta, KEN ZAZPI eta MUCHACHITO BOMBO INFIERNO taldeen kontzertua, Tolosako zezen-plazan, hilaren 15ean.

▶ Deitu eta har ezazu parte zozketan, 2 sarrera irabaz ditzakezu.

943 65 56 95 (11:00-13:00 / 16:00-18:00)

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

ADUNA ▶ UPELERA SAGARDO FESTA



Jende askok parte hartu zuen Tolosaldeko sagardo lehiaketan; eskuineko argazkian Sarasola sagardotegiko ordezkariak saria jasotzen. HITZA

Sagardo festaren azken eguna, biribila

Jende ugari antolatutako ekitaldietan; Sarasola sagardotegiak lortu zuen saria

IMANOL GARCIA

Sagarra bera bezain biribila izan zen Upelera sagardo festaren azken eguna. Jende ugari joan zen Adunara eta egin ziren hainbat ekitalditan parte hartu zuen. Esaterako, Tolosaldeko sagardo lehiaketan, bisitariak baitziren epaile aritzen zirenak. Eskualdeko zazpi sagardotegi aritu ziren lehian, guztiak Dolare zigilua dutenak. Jendeak adalontzia eta hamar

txartel hartzen zituen 2,5 euro-gatik, eta puntuaketa emateko orria eta boligrafoa. Horrela, sagardoak dastatzeko eta ondoren puntuak emateko aukera izan zuen. Hori bai, ez zekien zein sagardori ematen zion epaia. Azkenean, Asteasuko Sarasola sagardotegiak eskuratu zuen *sari demokratikoa*. Puntuaketak, hala ere, oso berdintsuak izan ziren, eskualdean egiten den sagardo onaren seinale.



Herri kirol saioek frontoia goraino bete zuten. HITZA

Herrigunean jarritako azokak ere arrakasta izan zuen jende kopuruaren aldetik. Aburuza sagardotegian egindako bertso bazkaria ere 300 lagunetik gora bildu ziren. Eta herri kiroltetako saioan, frontoia guztiz bete zen. Otaño eta Nazabal bikoteak Erasun eta Azurmendi bikotea gailendu zuten aizkorako proban. Aimar

Irigoien harri-jasotzaileak esku bakarrarekin marka hobetu zuen eta 218 kilotan utzi. Antolatzaile lanetan aritu den Muxkil elkarte eta lagun-tzaile aritu den Tolosaldea Garatzen gustura daude Upelera egitasmoarekin, eta bereziki Adunako herritar guztiak egindako lanarengatik festa aurreratarazteko.

ANOETA-IRURA ▶

Ikastaroak egiteko aukera zabala

ERREDAKZIOA

Irurako Udalak jarri ditu dagoeneko martxan urteroko ikastaroak: euskal dantzak, ingelesa, pilota, musika, eskulanak, xakea eta egur taila. Eskulanean eta egur tailan izena eman aurretik haurrek 30 euro eta helduek 60 euro ordaindu behar dituzte 2101 0227 01 0000089540 kontu zenbakian, eta agiria aurkeztu hilaren 13ko 19:00ak baino lehenago, udaletxean edo liburutegian. Beste ikastaro batzuetan parte hartzeko aukera ere izango da: mantentze gimnastika, areto dantza, sukaldaritza, antzerkia helduentzat, ziri-enkajea eta aerobik. Udalak deialdia egiten du beste ikastaro berri bat proposatu nahi duenak udaletxera jo dezan.

Bestalde, Anoetako eta Irurako udalek martxan jarri dute autodefentsa ikastaroa aurten ere. Iruran egingo da, urriaren erdialdetik abenduaren erdialdera. Ordutegia izena ematen dutenen artean zehaztuko dute, hilaren 18an, 18:00etan, Irurako udaletxean egingo den bileran. Prezioak honakoak dira —murrizpenak anoetarrei eta irurarrei soilik aplikatuko dizkiote—: 30 euro langileek eta 20 euro langabetuek, ikasleek eta 60 urtetik gorakoek. Izena emateko epea hilaren 18a arte da, eta horretarako Irurako edo Anoetako udaletxetara jo behar da.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- beheko
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-maila: enia@inmoernia.com
www.inmoernia.com

Altzo. Etxe bifamiliarr ederra salgai. Ikusteko modukoa. Bista ederrak ditu.
Bidania. Eraikuntza nahiko berriko etxe bifamiliarra salgai, oso egoera onean.
Ibarra. San Inazio auzoan. 3 logela, sukalde-egongela eta bainugela.

Dena kanpoaldera, oso eguzkitsua. Estreintatzeko!

Ibarra. Plaza inguruan garajea salgai.

Ikaztegieta. Etxe abikia salgai. Lorategi eguzkitsuarekin.

Larraul. Eraikuntza berriko etxe bifamiliarra. Zoragarria!

Tolosa. Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai 155.060 eurotik aurrera.

Tolosa. Montezkue. 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Baratza eta txabolarekin. 204.345 euro.

Tolosa. Berazubi. 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Bizitzin jartzeko moduan. 237.400 euro.

Tolosa. San Esteban auzoa. 3 logela. Oso eguzkitsua. Dena kanpoaldera.

Berokuntzarekin.
Tolosa. Berazubi. 2 logela, sukaldea,

egongela, bainugela. Guztiz berrieta.

Tolosa. Zuberua. 3 logela, sukaldea, egongela eta bainugela dituen etxebizitza polita salgai. Erabat berrieta. Igogailu eta berokuntzarekin.

Tolosa. Amaro auzoan 3 logelako etxebizitza salgai igogailuarekin.

Tolosa. Guztiz berrieta. Trastelekuarekin. Aukera paregabea!

Tolosa. Larramendi kalean. 96 m²-ko etxebizitza salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela.

Tolosa. Trasteleku eta garajea. Dena 330.560 euro.

Tolosa. Zezen-plazan. 87 m²-ko etxebizitza berrietzko igogailuarekin.

Tolosa. Foruen etorbidean guztiz berrietako etxebizitza salgai. Ikusteko modukoa!

Tolosa. Geltokialdea. Eraikuntza berria. 2 logela, egongela, sukaldea,

bainugela, 2 terraza eta 2 lorategi.

Behean: garajea, komuna eta bokoa.

Tolosa. Trinkete. 3 logela eta bi bainugela dituen etxebizitza salgai.

Tolosa. Erdialdean. Guztiz berrieta. 3 logela, sukaldea, egongela eta bainugela.

Tolosa. Igogailuarekin eta berokuntzarekin. 306.517 euro.

Tolosa. San Frantzisko ibilbidean. Pisu ederra. 4 logela, 2 bainugela.

Tolosa. Kanpoaldera, altua, berokuntzarekin. Garajea aukeran.

Tolosa. San Frantzisko ibilbidean 120 m²-ko eraikuntza berriko etxebizitza salgai.

Tolosa. Araba etorbidea. Garajea alokairuan.

Tolosa. Pablo Gorosabel. Taberna alokairuan.

Tolosa. San Frantzisko ibilbidean 126m²-ko etxebizitza berrieta, 4

logela, 2 bainugela. Kanpoaldera, altua, berokuntzarekin. Garajea aukeran.

Txarama inguruan. 100 m²-ko etxebizitza terrazarekin salgai.

Egongela su bajuarrekin. Lur saila eta garajearekin. Oso egoera onean.

Villabona. Etxeondoren etxebizitza garajearekin salgai. Pisu, 3 logela eta 2 bainugelarekin.

Villabona. Eraikuntza berrian 2 logela, sukaldea, egongela eta bainugela dituen etxebizitza salgai.

Garajea aukeran.

Villabona. Kale Berria. 2 logela, sukaldea, egongela eta bainugela.

Erabat berrieta. Berokuntzarekin.

Villabona. Larrea. Eraikuntza berriko 80 m²-ko etxebizitza salgai. Garajea aukeran.

Villabona. Kale Berrian 30 m²-ko garaje ibxia salmantan.

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA ▶



Bixente Gorostidi eta Amaia Agirre binakako txandan elkarrekin aritu ziren bertsotan. BERTSOZALE ELKARTEA

Amaia Agirrek finalerdietarako lehen txartela lortu du

Billabonarrak saio erregularrena egin zuen; Bixente Gorostidi amezketarra hirugarren geratu zen sailkapenean

MARTA SAN SEBASTIAN

Bertsolari Txapelketa Nagusiko lehen kanporaketa egin zuten igandean Lekunberrin, eta finalurrekoetarako lehen sailkatuaren izena jakina da: Amaia Agirre. Billabonarrak saiorik onena egin zuen, eta finalurrekoetara zuzenean pasatzeko txartela eskuratu zuen. Faborito handia, Xabier Silveira, bigarren geratu zen sailkapenean, eta Bixente Gorostidi amezketarrak hirugarren postua urratu zuen.

750 ikus-entzule bildu ziren Lekunberriko Plazaola kiroldegian. Epaile lanetan Jon Abril, Saioa Mitxelena, Eneko Bidegain, Felix Irazustabarrena alegiarra, Mikel Aizpurua, Mirari Azula, eta Joseba Santxo aritu ziren.

«Saio erregularrena egin nuen, eta horrek garapina eman zidan», adierazi du pozik Amaia Agirrek. Izan ere, saio osoan puntuak pilatzen joan zen billabonarra, eta saikapean 688,5 puntu lortu zituen. Bigarren sailkatuari, Xabier Silveirari, dezenteko tartea aterazion, 20 puntu. Bixente Gorostidi hirugarren geratu zen 664 punturekin. Estitxu Eizairre laugarren 651,5 punturekin, Igor Muniategi bosgarren 622,5 punturekin eta, azkenik, Joxe Juan Zubieta *Etxabe* 619,5 punturekin.

AMAIA AGIRRE

«Konfiantza hartu dut nire gain, eta beharbada gehiago arriskatuko naiz finalurrekoan»

«Nire helburua ondo baino hobeto bete dudala uste dut, eta oso pozik nago. Saioak merezi zuen tentsioa mantendu nuen, eta ez nintzen gehiegi konfiatu», azaldu du bertsolari billabonarrak. Agirrek dioenez, «badakit bertso zoragarriak ez nituela bota, baina, saioko okerrenak ere ez; eta horrela puntuak pilatzen joan nintzen». Askok iragarri zuten moduan, zilegi zen sorpresarako tartea; eta halaxe izan zen. Xabier Silveira zen faboritoa, eta bigarren postuan geratu zuen. Saio ona egin zuen, baina faborito zela jakiteak ez zion mesederik egin bertsolari le-sakarrari.

Saioa orokorrean ez zen bikaina izan. 8ko handian motel samar ibili ziren sei bertsolariak, eta bertsoaldi politena Agirrek eta Gorostidik egin zuten. Bakarkako txandan ere Agirre nabarmendu zen. Villabonako bertsolariak azaldu duenez, «hurrengoan agian gehiago arriskatuko naiz, konfiantza hartu dut nire gain eta

finalurrekoetara beste jarrera batekin joango naiz».

Hurrengo kanporaketa larunbatean izango da Idiazabal-en. Bertan, Etxahun Lekuek, Iker Zubeldiak, Iñigo Izagirrek, Asier Otamendi, Ekaitz Goikoe-txeak eta Iñaki Gurrutxagak kantatuko dute. Finalurrekoetan Amaia Agirre billabonarrarekin nor lehiatuko den jakingo dugu.

iragarki laburrak ▶

LANA
Langilea. Iturgintza, berokunza eta gas lanetarako langilea behar da. 656 41 68 08.
Garbiketa. Bi neska eskaintzen dira portal, eskaratze, tarbernan garbiketarako. 943 68 30 57 eta 943 68 35 70.

SALGAI
Txakurkumeak. Txakurkumeak salgai. Pincher arrazakoak. Prezio onean. 645 70 36 34.
Egurra. Su egur lehorra salgai. Paga eta haritza. 615 75 57 62 (arratsaldez).

AURKUTUTAKOAK
Txakurra. Zakur bat aurkitu da Monteskuen. Euskal artzaina nahasketa, marroia, lepoko marroiarekin, lau bat hilabetekoa. Galdu duenak dei dezala 943 65 00 30 telefono zenbakira (Koldo).

ALEGIA ▶

Jubilatu Egoitzan gimnastika klaseak hastear

Alegiako Jubilatutako Egoitzan hirugarren adinekoei zuzendutako gimnastika ikastaroak hasiko dira laster. Asteartetan eta ostegunetan izango dira eskolak, 17:30etik 18:30era. Jadanik askok eman dute izena, baina oraindik badago lekua gehiagorentzat. Interesaturik dauden pertsona guztiak astearte edo ostegunetan Alegiako Jubilatutako Egoitzatik pasatu behar dute ikastaroko ordutegian izena emateko.

ALEGIA ▶

Euskal Dantza ikastaroa antolatzeko bilera

Alegiako Txintxarri dantza taldeak aurten ere ikastaroa antolatzea nahi du. Horretarako lehen bilera deitu nahi du interesaturik dagoen edonor. Bilerak gaur, 19:30ean, izango da, Intxurre elkartearen Deialdi honetan ordutegia, ikastaroaren egunak eta bestelako xehetasunak adostu nahi dituzte eta, beraz, jende asko joatea komeni da. Guztiak ondo datorkien egutegia eta ordutegia mol-datzea da helburua.

AMEZKETA ▶ PILOTA

Saralegik ezin izan du ametsa bete Bergaran

Amezketarrak irabazteko aukerak izan arren, bi huts egin eta 22-16 amaitu zuten

M. S. S

Ekaitz Saralegik ezin izan zuen ametsa bete, eta Eugiren aurrean 22-16 galdu zuen igandean Bergarako pilotalekuan. Partida irabazteko aukerak izan zituen amezketarrak, baina aurrea hartzen hasi zenean bi huts handi egin zituen sakez. Eugirentzat bi opari izan ziren, eta partida irabaztea lortu zuen.

«Lasai nengoen eta borrokatu dut, baina Eugiren pilota batekin ezinezkoa zitzaidan jokatzea», argitu du amezketarrak. Saralegik badaki izugarriko aukera galdu duela. Hala ere, pozik dago partidaren egindako lanarekin. «Irabaztea ametsa zen, baina, pozik nago partidarekin», dio Saralegik.

Patxi Eugik final-zortzirenetan Patxi Ruizen aurka jokatu du.

OSTALARITZA GIDA 2006

Tolosaldeko eta Goierriko:

- Jatetxeak
- Erretegiak
- Pintxo tabernak
- Sagardotegiak

bilduko dituen gida.

17.000 aleko banaketa zabal

Jarri zure iragarkia ostalaritza gidan

Iragarkiak kontratatzeko: 943 304 333 publi@iragarri.net

Goierriarra hitza

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Elkartasun
Eguna:
elkartasuna eta
mobilizazioak

Bi elkartasun mota bereizten ditut: bata pertsonala da, Eider, Ekaitz, Maite, ihesean daudenek, neronek pertsona bezala jaso dezakegun elkartasuna. Maite gaituztenen partetik etortzen dena, etxekoak eta lagunak gehienbat. Direla aurrez aurrekoak, bisitak, gutunak, eskuminak, oparitutako liburuak... babes handia da gure-

tzat, segurtasuna, bizi-poza, arnasa.

Bestea, berriz, elkartasun politikoa da. Gure konpromiso politikoari atxikimendu politikoa erakusten dutenen partetik ematen da. Aurrera jarraitzeko beharrezko indarra. Herriaren alde ematen dugun askatasunaren zati handi hau alferrik ematen ari ez garela frogatzen diguna izango litza-teke.

Baina askotan kontraesanak ematen dira bi elkartasun mota hauen artean. Hala, elkartasun pertsonala erakusten dituguten batzuk ez digute elkartasun politikoa erakusten eta al-

derantziz. Badira, noski, bi motatako elkartasunak erakusten dizkigutenak ere, eta esan beharrik ez dago azken hauek direla gehien eskertzen ditugunak.

Bestalde, mobilizazioek guretzat ia dena suposatzen dute. Kontuan izan preso gauden gehien gehienok jakitun gina bazer hauetan bukatzeko genituen aukera handiez gure konpromiso politikoa zirela eta. Hau da: etxekoak, bikote laguna, koadrila, lana, ikasketak, parranda, mendi bueltak... hitz batean, maite dugun guztia

bazterrean utzi eta, gainera, espetxean zakur abandonatuen pareko bizi-baldintzetan urte luzez egoteko prest gaudela.

Beraz, herriaren aldeko konpromisoa da edozeren gainetik jartzen duguna eta mobilizazioak, kontzentrazioak, ekimen ezberdinak (gure aldekoak nahiz herri errebindikazioren baten aldekoak izan) konpromiso honen barruan kokatzen dira.

Eta puntu honetan elkartasunaren gaira itzultzen naiz berriro. Maite gaituen pertsona horrek, zalantzarik gabe kalean ikusi nahi gaituen etxeko, la-

gun edo ezagun horrek jakin behar du tamalez, pertsona bezala erakusten digun maitasun mugagabe ta eskuzabaltasunak ez gaituela libre egingo.

Gu askatuko gaituena, guk hartu ditugun bideak beste batzuk har ez ditzaten baldintzak sortuko dituen, era guztietako mobilizazioak eta menpean gaituen boterearen aurkako presio erraldoia izango dira, boterea entzungor baitzaio borondate on hutsari.

Esan bezela, mobilizazioek ia dena suposatzen dute guretzat.

JON MINTEGIAGA ▶ IBARRA

IBARRA ▶ KULTURA

Alurr-en
jaialdi
hunkigarria

Dantza taldeak bere pertsonaia esanguratsuenak izan zituen gogoan

IÑIGO TERRADILLOS

Alurr-en 10. urteurrena zela eta, Kultur Astea antolatu zuen pasa den astean dantza taldeak. Argazkien erakusketa eta taldearen ibilbidearen proiektioa erakutsiz, dantza «Ibarran izan zela, badela eta izango dela» frogatu nahi izan dute.

Kultur Astearen egun handia larunbatean izan zen; goizean taldeko gaztekoenek Ibarako kaleak alaitu zituzten euren dantza saioekin, eta gauean, berriz, jaialdi berezia izan zen Belabieta kiroldegian. Jaialdian ere, dantzaz gozatzeko tartea izan zen, baina Alurr dantza taldean egiteko handia izan dutenen errekonozimen-

duak hartu zuen pisurik handiena. Jose Luis Zubeldia taldeko sortzaileetakoa eta bere lekukoa hartu zuen Jon Zubeldia anaiarentzat aipamen bereziak izan ziren; baita Edurne Izagurre, Amaia Ugarte eta Garbiñe Olanorentzat ere, irakasten egin duten lanagatik; Jesus Mari Garatek, Eider Garmendiak, Ikutz Garmendiak eta Amaia Gerrikok eginiko lana ere azpimarratu zuten eta egun irakasle lanetan dabilen Edu Murumendiarazentzat ere izan ziren esker hitzak, «gazteen artean dantzaren magia berpiztu» izanagatik. Eta Mari Karmen eta Asun lehendakari eta lehendakariordearen lana ere goraiatu zuten. Jaialdiko une



Alurr dantza taldearen historian lan handia egin dutenak izan zituzten gogoan jaialdian. JOSU ESNAL

hunkigarriena Juan Mari Zurutza gogoan izan zutenean iritsi zen; txistulari bezala aritu zen urte askoan Alurr-ekin, eta oroigarri berezia eman zioten haren sendiari egindako lanagatik. Aipatzekoa da ere Udalak 10 urteengatik oroigarri bat eman ziola taldeari. Jaialdi berezia izan zen oso, saio politak ikusteaz gain sortu zen giroa «oso ona» izan zelako. Eta dantza taldeak lagundu zuten guztiei eskertu nahi die.

Bestalde, jendearen eskaera aintzat hartu ondoren, dantzaren inguruko argazkien erakusketa astebetetz luizatzea erabaki dutela jakinarazi dute.



Hainbat dantza saioez gozatzeko aukera izan zen. JOSU ESNAL

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.: 616 93 17 88



Andoain. Berrituriko etxebizitza salgai. 3 logela. Sukalde handia. Oso argitsua. Etxesagasti 943 69 68 56.

Irura. Aukera paregabea! Bizitzera sartzeko moduko etxebizitza salgai 32.000.000 pezetatan. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Larraul. Azken etxe abikia salgai. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Tolosa. Gazteentzako egokia. Logela bat eta terraza dituen etxebizitza. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Tolosaldea. Aukera ezin hobea. 100 m²-ko etxebizitza ederra salgai. 34 m²-ko garajearekin. Berria bezala. Etxesagasti. 943 69 68 56

Tolosaldea. Baserrira salgai. Etxesagasti. 943 69 68 5

Tolosaldea. Atxikituriko etxea lur sailarekin salgai. Egoera ezin hobean. 54.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 5

Villabona. Berrikuntza. Erdialdean kokatua, 2 logela dituen etxebizitza salgai. Eraiki berria. Ezin egokiagoa. Oso eguzkitsua. Oztoporik gabekoa.

Trastelekuarekin eta garajea aukeran. Etxesagasti.

943 69 68 56.

Zizurkil. Eraikuntza berria. 113 m²-ko etxebizitza paregabea. Trastelekuarekin. Etxesagasti.

943 69 68 56.

Eskaera handia dela eta, etxebizitzak, bakarkako etxeak, baserriak eta nekazal eta hirigintzarako lursailak behar dira, alokairuan edo salmantan Tolosaldean. Etxesagasti. 943 69 68 56.

▶ **TOLOSALDEKO HITZA.INFO**

Eztabaida. Hasi berri da Bertsolari Txapelketa Nagusia. Gure eskualdetik, Aitor Mendiluze, Amaia Agirre, Bixente Gorostidi eta Jexux Mari Irazu ari dira txapela lortzeko lehian. Nor iritsiko da urrutien? Eskualdean bertsolaritzaren etorkizuna nola ikusten duzu? Anima zaitze, eta eman zure iritzia gure web orrian.

ARESO ▶ GIZARTEA

Hurbiltasun adierazpenak Olazabalen omen egunean

Egun hunkigarria bizitu dute herrikideek, kirol-lagunek eta bertaratutako guztiek



Harrizko oroigarriaren aurrean, *Aurreskua* eskaini zioten. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

«Ederra», «polita», «gogoan-garria», «oso»... baina, batez ere, «hunkigarria». Horixe izan zen Areson Joseba Olazabal herrikideari eskaini zioten omenaldiaz hitz egiterakoan jendartean entzuten eta nabaritzen zen hitza eta sentimena.

Duela ia bost hilabete zendu zen gaztea gogoan izan zuten, eta ekitaldietan, herritarrek ez ezik, herri kiroltako kideek beren omena egin zioten Areso sokatira taldeko tiratzailea zenari. Horrela, goizeko mezatik hasita, arratsaldea ongi sartu

arte, hainbat eta hainbat modutako saioak izan ziren, herrian bertakoak ez ezik, inguruetatik ere bertaratutako jende multzo handiaren parte-hartzearekin: plaza beterik ageri zen, bai barren eta bai kanpo.

Unerik hunkigarrienak, sendeak bertan zirela, lagun taldeak egin zuen oroimenezko irakurketa, *aurreskua* eta harrizko oroigarriaren agerpena izan ziren, besteak beste; edo bertako udal ordezkariak herriaren izenean egindako eskaintza; edo Aresoko eta beste sokatira taldeetako ordezkari



Nafarroak lortutako Txapela Olazabali eskaini zioten. J. ASTIBIA



Otordu batean elkartu ziren herritar, lagun, kirolari... J. ASTIBIA

riek ere oroigarriak eman zizkienezkoa. Modu berean, Nafarroako Herri Kirol Federazioko lehendakariak bezperan Zazpi Herrialdeetako Kirol Txapelketan Nafarroako taldeak lortutako txapela monolitoaren aurrean jarri zituen, «gaurko bertzat izan dedila», eskainiz.

Eta, noski, herri kirolarien saioa ere ez zen atzean gelditu, eta goma gaineko soka, harri-aitzatzailak, trontzalariek, aiz-

kolariak, pilotariak, lur gaineko soka... guztiek oroimenezko ikuskizun ederra egin zuten. Ondoren, 250 lagun elkartu ziren bazkarian, bertsolariekin.

Esker oneko hitzak adierazi zituzten antolakuntzakoek: «Parte hartu duten kirolari, bertsolari eta lanean aritu diren guztiei, eta baita bertan bildu den jendeari ere, beren elkartasuna eta hurbiltasuna adieraztera etortzeagatik».

KIROLAK ▶

Nafarroaren txapelaren puskatxo bertakoentzat

Sokan, ingudean eta harrian aritu dira hiru leitzar; Gabirondo, Gipuzkoarekin

J. ASTIBIA

Larunbatean jokatu zen Zazpi Herrialdeetako Kirol Txapelketa Nafarroak irabazi zuen, azken hiru urteetan bezala, 49 punturekin; Bizkaia-oren ondoren gelditu zen Gipuzkoa, 40 punturekin. Eta gure bi herrialdeetako taldeetan parte hartu zuten gure herrietako hainbat kirolarik.

Horrela, Nafarroak txapela eskuratzeko eginahalaren puska bat, behinik behin, Leitzako hiru kirolarik egindakoa izan zen, 10 kiroleratik hirutan parte hartzeko hantxe baitziren Iñaki Perurena, Josexo Urrutia eta Migel Angel Sukuntza, harri altxatzen, ingudearekin eta sokatiran, hurrenez hurren. Perurenak bere aldetik, gainera, 100 kiloko harriarekin Nafarroan zegoen marka, 31 jasoaldi-koa, hautsi egin zuen, 33 eman zizkion eta. Lan honetan, edozein moduz, bigarren gelditu zen, Izeta II.aren ondoren. Leku bera lortu zuen Urrutiak ere, ingudeari 89 altxaldi eman zizkiolarik. Sukuntza, ordea, lehen lekuan lortu zuen Beti Gazte sokatira taldean aritu zen lanean. Esan liteke, beraz, bertakoek lan ona egin zutela txapelaren eskuraketarako.

Bestalde, Gabirondo gazteluarra ere trontzan aritu zen, hau Gipuzkoako taldean, Esnaola lagun zuela. Eta, Euskal Herriko txapelduna izaki, kirol honetako garaila atera ziren, taldearentzat bigarren garaipena lortuz; beste harriarekin lortu zuten.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko urriaren 11, asteartea ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzola, Aduna, Abotzu, Alege, Alca, Alzo, Ametsola, Anosta, Araso, Arcaño, Balamán, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Etxauri, Herrialde, Iturrutzu, Iruñea, Leizorri, Lizarraga, Oñate, Oñena, Tolosa, Villabona, Zizkeli, besterik: Leizaldeko Euskara Batzordea

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jaurilaritza, Kultura Saila

GAURKO EGURALDIA



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Gaztelu-Orexa. Bihar Uliko festa antolatu dute Gazteluko eta Orexako udalek, 1985etik aurrerako ohiturari jarraituz. Gazteluko eta Orexako herritarren artean izaten da festa. Izena eman nahi duenak Orexako edo Gazteluko udaltxeetara jo behar du

Leaburu-Belauntza.

Leaburuko eta Belauntzako udalek Nafarroa Oinezera joateko autobusa antolatu dute. Pertsona bakoitzak ordaindu beharrekoa 6 euro izango dira. Autobusa 08:15ean aterako da Txaramatik, 08:20ean Leaburutik eta 08:30ean Belauntzatik. Etzi izango da izena emateko azken eguna, eta Leaburuko udaltxean edo Belauntzako Kultur Etxean egingo da, edo 943 67 00 20 telefonoan.

Tolosa. Hilaren 16an Altsasun egingo den Nafarroa Oinez 05 festara joateko autobusak antolatu ditu Galtzaundik. Izen-ematea, bulegoan (Nafarroa et. 6) hilaren 14a bitarte, 17:00etatik 20:00etara.

Tolosa. Tolosaldea LH Institutuaren oharra: etzi, 19:30ean, Donostiako Easo LHlan langileak tituluak lortzeko, lanbide gaitasuna egiaztatzeari buruzko bilera.

Tolosa. Monreal-Unzue mendi irteera antolatu du Alpino Uzturrek hilaren 16an. Zazpi orduko ibaldia da; Higa-Elomendi (1.289m.), Txanburu (1.135m.) eta Unzue (990m.) igoko dituzte. Izen-ematea, elkartearen (Gudari 5, beheha. 943 65 27 89)

ERAKUSKETAK

Ibarra. Alurr dantza taldearen argazkien erakusketa ikusgai, Kultur Etxean, aste osoan.

Tolosa. Ipuinartean I egitasmoaren erakusketa. Azaroaren 5a arte, Aranburu Jauregian.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Tolosa. Morant, R. Zabalarreta 1. 943 67 38 49.
Leitza. O. Erbiti. Lizarraga, 7. 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Ibili eta ezagutu

VILLABONA ▶ Aizkardi Mendizaleen Elkartek Lizarraga gainetik Andoin herrirainoko ibilbidea antolatu du igande honetarako



Bargagaingo gurutzeara topatuko dute mendizaleek ibilaldian. HITZA



Ikuspegi ederrak izango dituzte ibiltariek, San Adrian basilizara gerturatzen ari direnean, esaterako. HITZA

ERREDAKZIOA

Aizkardi Mendizaleen Elkartek beste mendi ibilaldi bat antolatu du aste-buru honetarako. Elkartek Euskal Herriko hiriburuak uztartuz egitasmoa burutu du, eta orain Iruñea-Gasteiz bidea beste ibilbide batetik egingo du. Lizarragatik Arabako hiriburura, hiru irteeratan.

Igandean, beraz, Lizarraga gainetik Andoin herrirako ibilbidea egingo dute. Horretarako, Urbasako mendilerroa zeharkatuko dute ekialdetik mendebaldera, Burundako bailarara begiratzen duen gainetik. Lizarraga bertan hasita, San Adriango basiliza (1.113 metro) eta Baitza mendia (1.182 metro) zeharkatuko dituzte. Hortik Iturmendiko gainera jaitsiko dira. Inguruan, Santa Marinako basiliza (1.055 metro) dago, bere aterpe txikiarekin. Bidaia hurrengo puntua Bargagain (1.153 metro) izango da. Bertatik Urbasako gainara jaitsiko dira. Argibel (1.068 metro), Gainsoil eta Legumbe (1.127 metro) izango dira hurrengo helburuak, ondoren Andoin herrian ibilbidea bukatzeko.

Guztira 7,5 ordu inguruko eta 26 kilometrotako bidea burutuko dute mendizaleek. Izena emateko Aizkardiko egoitzara joan behar da, edo 943 69 44 58 telefonora deitu. Horretarako azken eguna etzi izango da. Aukera ederra, beraz, elkarte billabonatarren eskaintzen duena mendian ibili eta bien bitartean Euskal Herriko txoko ezberdinak ikusi eta gozatzeko.

AGURRAK ▶

HITZA, zorion agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:

Araba etorbidea, 5 beheha - TOLOSA • Udaltxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!